

15

MAIATZA
2019

Infokontsumoa

ETIKETAK (I)

EGUZKI BETAURREKOAK ETA EGUZKITAKO KREMAK



SANTURTZI
udala - ayuntamiento
Stz

IUB
MIC

 **kontsumoBIDE**
KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

Kontsumitzaileek etiketen lengoaia ulertu behar dute

Etiketatzeari modurik egokiena da **salgaien ezaugarri, erabiltzeko modu eta kontserbazioaren** berri emateko.

Hala ere, kontsumitzaileok sarritan ez dugu ulertzen etiketetan erabiltzen den **terminologia edota sinbologia**.



Beste batzuetan, **etiketak berak ditu legalki** edo ondasunaren izaeragatik jaso beharko lukeen informazioaren inguruko gabeziak. Horregatik **funtsezkoa da behar duzun informazioa izatea**

Etiketaren eduki nagusia

Etiketa zera da: produktu bati dagokion **informazio idatzia, inprimatua edo grafikoa, zeina salgaiarekin batera egon behar baita, kontsumitzaileari erosteko eskaintzen zaionean.**

Etiketetan honako datu orokor hauek agertu behar dira beti:



- ▶ Salgaiaren **izen** generikoa.
- ▶ **Salgaiaren arduradunaren** identifikazioa.
- ▶ **Erabiltzeko argibideak** eta aurreikus daitezkeen **arriskuen** gaineko oharra.

Kontuan izan etiketekin lotutako hurrengo **gomendioak**:



- ▶ **Erosi etiketa duten salgaiak**, etiketa segurtasun-bermea da.
- ▶ Etiketa bat ondo irakurri ezin baduzu edo zer dioten ulertzen ez baduzu, **galdetu establezimenduan**.
- ▶ Gama bereko bi produktu konparatu nahi baduzu, **erosteko erabakia jakinaren gainean egonda** hartzeko aukera ematen du etiketak.
- ▶ **Gorde etiketa produktuaren bizi-ziklo osoan**, baliteke eta erosi ondoren behar izatea.

Jarraian, **eguzkitako kremak edo eguzki betaurrekoak** erosi behar dituzunean kontuan hartzeko zenbait aholku duzu.



Eguzkitako kremen etiketak

Eguzki-babeserako produktuen helburua eguzkiaren UV izpiez babestea da. **Kosmetikoak direnez**, eguzkitako kremen ontzietan, eduki **orokorraz** gain, honako informazio hau egon behar da:

- ▶ Produktuaren **izena** eta **funtzioa**.
- ▶ **Edukia** pisuan edo bolumenean adierazita.
- ▶ **Gutxieneko iraungitze-data** produktuaren bitzta 30 hilabetekoa baino laburragoa denean bakarrik. Luzeagoa bada, ontzia zabaldukoan kontsumorako inolako arriskurik ekartzen ez duen epea baino ez du izan behar. Hilabetetan agertzen da. 
- ▶ **Erabiltzeko neurri bereziak**. Argibideak ezin direnean ontzian azaldu, erantsitako dokumentazioan egon beharko dute. 
- ▶ **Fabrikazio-lotearen** zenbakia.
- ▶ **Jatorriko herrialdea**, produktuak EBtik kanpo ekoizten direnean.
- ▶ **Osagaien zerrenda**, garrantzi handienetik txikira ordenatuta.
- ▶ **Kontsumitzaileen kontsultak** kudeatzeko sistema. Horretarako telefonoa, posta elektronikoa helbidea edo webgunea egon daiteke enbalajearen.

Gainera, **eguzki-babeserako produktuatarako** EEn gomendioaren arabera, honako zehaztapen hauek izan behar dituzte:

- ▶ **“Erabateko babesa” bezalako esaldiak erabiltzeari utzi behar diote**, ez baitago UV izpiez erabat babesten duen produkturik. **“Egun osorako babesa” ere ez**, izan ere, babesa mantentzeko berriro eman behar da produktua.
- ▶ Jasota egon behar da **%100eko babesa ez dela**, bai eta hartu beharreko neurriak eta azalean emateko aholkuak ere.

Etiketan adierazten den maila	Etiketan agertzen den eguzki-babesaren faktorea	▶ Normalizatutako esaerak erabili behar dira, hala nola, “txikia”, “ertaina”, “handia” edo “oso handia” babes-mailari buruzko orientabide hobek emateko.
“Babes txikia”	6-10	▶ UVA/UVB terminoa agertu behar da babes-maila 6koa edo handiagoa denean.
“Babes ertaina”	15-20-25	
“Babes handia”	30-50	
“Babes oso handia”	50+	

Eguzki betaurrekoen etiketak

Eguzki betaurrekoak oso produktu onuragarria da pertsonen osasunerako. Erositakoan oso garrantzitsua da etiketa begiratzea, **gutxieneko kalitate eta segurtasun baldintzak** betetzen dituztela egiaztatzeko.

Etiketa horietan, informazio orokorraz gain, honako hau agertu behar da:

- ▶ **CE marka**, Europak ezarritako kalitate-kontrolak pasatu dituela azaltzen duena.
- ▶ **Duten eguzki-iragazkia**. Eguzki betaurrekoei buruzko Europako araudiaren arabera, bost kategoria dago:

Iragazki-maila	Eguzkiaren argitasuna	Absortzioaren %	Deskribapena	Argibideak
0	Oso txikia	0-20	Lente argiak edo oso koloratu arinekoak	Eguraldi estalia, lainoa, haizea, hautsa.
1	Txikia	20-56	Koloratu arineko lenteak	Eguneroko jardunak.
2	Ertaina	57-81	Lente koloratuak.	Eguneroko jardunak/Kirola.
3	Handia	82-91	Lente ilunak.	Hondartza, mendia.
4	Oso handia	92-97	Oso lente ilunak.	Ur-kirolak, goi-mendietan. Ezin dira gidatzeko erabili.

- ▶ **UV (UVA eta UVB) erradiazioetik babesten duen maila, zeinak ez baitu lentearen kolorearekin zerikusirik**. Kolorerik gabeko lente batzuek UV % 100eko babesa dute UV erradiazioekiko; oso ilunak diren beste batzuek, berriz, ez dute iragazkirik eta, kristala oso iluna denez, ninia dilatatu daiteke eta betaurrekorik gabe baino erradiazio handiagoa jaso dezake.

- ▶ Produktuak betetzen duen kalitateari **buruzko araudia**.

- ▶ **Informazio orokorra** duen informazio-liburuxka, bai eta **erabiltzeko, gordetzeko, garbitzeko eta mantentzeko aholkuak**, produktuak UV erradiazioen kontra duen babes-mailari buruzko oharra eta **gidatzeko erabilpenari buruzkoa** ere.

